

URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA
AZTI FUNDAZIOAREN ARTEKO
LANKIDETZARAKO ESPARRU-
AKORDIOA, BIEN HELBURUEI
DAGOZKIEN IKERKETA-JARDUERAK
ETA AZTERLANAK EGITEKO.

ACUERDO MARCO DE COLABORACIÓN
ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA
Y LA FUNDACION AZTI / AZTI
FUNDAZIOA PARA LA REALIZACIÓN DE
ACTIVIDADES DE INVESTIGACIÓN Y
ESTUDIOS PROPIOS DE LOS FINES DE
AMBAS.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 31an.

En Vitoria-Gasteiz a 31 de enero de 2020.

BILDU DIRA

Ernesto Martinez de Cabredo Arrieta
jauna, Uraren Euskal Agentziako
zuzendari nagusia, eta Rogelio Pozo
Carro jauna, Azti Fundazioko zuzendaria.

BILDU DIRA

Ernesto Martinez de Cabredo Arrieta
jauna, Uraren Euskal Agentziako
zuzendari nagusia, eta Rogelio Pozo Carro
jauna, Azti Fundazioko zuzendaria.

PARTE HARTU DUTE

Lehenengoa, Uraren Euskal Agentziako
zuzendari nagusia den aldetik, eta
Estatutuen 7.2.g) artikulua ematen dion
eskuduntzari jarraikiz.

Eta bigarrena, Azti Fundazioaren izenean
eta hura ordezkatzuz, 2006ko urtarrilaren
30ean Vitoria-Gasteizko Alfredo Pérez
Ávila notarioaren aurrean egiletsitako
eskrituraren arabera (protokolo-
zenbakia: 360).

INTERVIENEN

El primero de ellos en su calidad de
Director General de la Agencia Vasca del
Agua y en virtud de la atribución que le
confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos.

Y el segundo, en nombre y representación
de la Fundación AZTI/AZTI Fundazioa, en
virtud de escritura de elevación a público
de acuerdos sociales, otorgada ante el
Notario de Vitoria-Gasteiz, D. Alfredo
Pérez Ávila, el día 30 de enero de 2006,
con el número 360 de su protocolo.



Esku-hartzaileek elkarri aitortzen diote legezko gaitasuna dutela ESPARRU-AKORDIO hau egiteko, eta, horretarako, honako hau:

AZALDU DUTE

LEHENENGOA.- Uraren ekainaren 26ko 1/2006 Legeak Uraren Euskal Agentzia sortzen du, zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, lege horrek uren arloan esleitzen dizkion eginkizunak kudeatzeaz arduratuko dena, eta ingurumenaren arloan eskumena duen sailari atxikita.

BIGARRENA.- Aipatutako Legean eta Estatutuetan (25/2015 Dekretuaren bidez onartuak) xedatutakoaren arabera, Agentziaren xedea da uraren politika Euskadin gauzatzea, eta, bestiak beste, eginkizun hauek ditu:

- 1/2006 Legean aurreikusitako plangintza hidrologikorako tresnak prestatzea.
- Erkidego arteko arroen estatuko plangintza hidrologikoan parte hartzea, haien araudi erregulatzaillearen arabera.
- Jabari publiko hidraulikoa babesteko esku-hartzeak.

Las personas intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente ACUERDO MARCO, y a tal efecto.

EXPONEN

PRIMERO.- Que la Ley 1/2006, de 26 de junio, de Aguas, crea la Agencia Vasca del Agua como ente público de Derecho privado responsable de la gestión de las funciones que dicha ley le atribuye en materia de aguas, y adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente.

SEGUNDO.- Que de conformidad con lo dispuesto en la citada Ley y en sus Estatutos (aprobados por Decreto 25/2015) la Agencia tiene por objeto llevar a cabo la política del agua en Euskadi, y ejerce, entre otras, las siguientes funciones:

- La elaboración de los instrumentos de planificación hidrológica previstos en la Ley 1/2006.
- La participación en la planificación hidrológica estatal de las cuencas intercomunitarias, de acuerdo con su normativa reguladora.
- Las intervenciones para la protección del dominio público hidráulico.

- Estatuko Administrazioak transferitutako, eskuordetutako edo agindutako eskumenak.

- Urpean gera daitezkeen eremuetan erabilera-mugak ezartzea Jaurlaritzari, pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen badira.

- Lehorretik itsasora isurketak baimentzea.

- Itsas-lehorreko zortasun-eremuetan baimena ematea, bai eta horiek zaintzea, ikuskatzea eta zehatzea ere.

- Arloan eskumenak dituzten administrazioekin koordinatuta, jabari publiko hidraulikoaren babesa eta kontserbazioa bermatzea.

HIRUGARRENA.- AZTI / AZTI Fundazioa interes orokorreko fundazioa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sustatua, irabazi-asmorik gabea, eta Eusko Jaurlaritzako Fundazioen Erregistroan inskribatua. Fundazio horren helburua da nekazaritzako elikagaien, itsasoaren, ingurumenaren eta, oro har, baliabide naturalekin eta ingurumenarekin lotutako zientzien arloko ikerketa sustatzea eta ikerketa egitea.

LAUGARRENA.- AZTIk, bere jarduera zehatzen artean, honako hauek egiten

- Las competencias transferidas, delegadas o encomendadas por la Administración estatal.

- La propuesta al Gobierno del establecimiento de limitaciones de uso en las zonas inundables que se estimen necesarias para garantizar la seguridad de las personas y los bienes.

- La autorización de los vertidos tierra-mar.

- La autorización en zonas de servidumbre marítimo-terrestre, así como su vigilancia, inspección y sanción.

- Garantizar, en coordinación con las administraciones con competencias en la materia, la protección y conservación del dominio público hidráulico.

TERCERO.- Que la Fundación AZTI / AZTI Fundazioa es una fundación de interés general promovida por la Administración General del País Vasco, sin ánimo de lucro, inscrita en el Registro de Fundaciones del Gobierno Vasco, que tiene por objeto promover el estudio y realizar investigación en el ámbito de las ciencias agroalimentarias, del mar, ambientales y en general relacionadas con los recursos naturales y el medio ambiente.

CUARTO.- Que, entre sus actividades concretas, AZTI realiza, entre otras, la

ditu, besteak beste: teknologia atzematea eta transferitzea, ikerketak eta azterlanak egitea eta baliabide naturalekin lotutako konponbideak diseinatzea eta garatzea, bai eta administrazio publikoei informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak ematea ere, bere xedeari dagozkion gaitan.

BOSGARRENA.- Zentzu horretan, AZTI etengabe ari da Agentziarekin lankidetzan 2008an bere jarduerak hasi zirenetik (eta lehenago uren arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailekin), eta, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Trantsizioko eta Kostaldeko Uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko lanak egin ditu, tributileztainuak (TBT) eta hexakloroak (HCH) eragindako kutsadura-mailari buruzko azterlanak. Estuarioen eutrofizazioarekiko eta euskal kostaldearekiko sentikortasuna, itsasertzeko bainatzeko uren profilen elaborazioa eta berrikuspena, estuarioetako sedimentuen karakterizazioa, etab.

SEIGARRENA.- Lankidetzaz-urte hauetan lortutako emaitza emankorrak ikusita, aldeek uste dute komenigarria dela lan horrekin jarraitzea, eta, horretarako, lankidetzaz-esparru orokor bat ezarri dute, bien helburuei dagozkien

captación y transferencia de tecnología y la realización de investigaciones y estudios y diseño y desarrollo de soluciones relacionadas con los recursos naturales, así como la prestación de servicios de información y asesoramiento a las Administraciones Públicas en las materias propias de su objeto.

QUINTO.- Que, en este sentido, AZTI viene colaborando de manera ininterrumpida con la Agencia desde el inicio de sus actividades en 2008 (y anteriormente con los correspondientes Departamentos del Gobierno Vasco competentes en materia de aguas), habiendo realizado, entre otros, trabajos para el Seguimiento del Estado Ecológico de las Aguas de Transición y Costeras de la Comunidad Autónoma de la CAPV, estudios sobre el grado de contaminación por tributilestano (TBT) y hexaclorociclohexano (HCH) en aguas de transición, evaluaciones de la sensibilidad a la eutrofización de los estuarios y costa vasca, elaboración y revisión de perfiles de las aguas de baño de la zona litoral, caracterización de sedimentos en estuarios, etc.

SEXTO.- Que, a la vista de los fructíferos resultados obtenidos a lo largo de estos años de colaboración, las partes estiman conveniente continuar con esa labor, estableciendo para ello un marco general de colaboración que sienta las bases para

azterlanak eta ikerketak egiteko oinarriak ezarriko dituen.

ZAZPIGARRENA.- Horregatik guztiagatik, alderdiek egokitzen duten esparru-akordio hau sinatzea, lankidetzaren horren oinarriak finkatzeko, honako klausula hauen arabera.

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- AKORDIOAREN XEDEA.

Akordio honen xedea da Uraren Euskal Agentziaren eta Azti Fundazioaren arteko lankidetzarako oinarri orokorrak ezartzea, honako helburu hauek dituzten ikerketa-jarduerak eta azterlanak egiteko:

- EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako ekosistemen ezagutza-maila hobetzea.
- EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako ekosistemen eta jabari publiko hidraulikoaren narriadura prebenitzeko eta egoera hobetzeko ekintzak sustatzea.
- Uraren arloan berrikuntza bultzatzea eta EAEko saneamendu-planak burutzea. Lankidetzaren hori nola gauzatuko den definituz.

la realización de estudios e investigaciones propias de los fines de ambas.

SÉPTIMO.- Por todo ello las partes estiman conveniente suscribir el presente acuerdo marco, con el fin de fijar las bases de dicha colaboración, con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- OBJETO DEL ACUERDO.

Constituye el objeto del presente Acuerdo establecer las bases generales de colaboración entre la Agencia Vasca del Agua y la Fundación AZTI/AZTI Fundazioa para la realización de actividades de investigación y estudios tendentes a:

- Mejorar el grado de conocimiento de los ecosistemas asociados a las masas de agua de transición y costeras de la CAPV.
- Promover acciones para prevenir el deterioro y mejorar el estado del dominio público hidráulico y los ecosistemas asociados a las masas de agua de transición y costeras de la CAPV,
- Impulso a la innovación en el campo del recurso agua y culminación de los planes de saneamiento de la C.A.P.V definiendo el modo en el que se llevará a cabo esa colaboración.

BIGARRENA.- URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONPROMISOAK.

Uraren Euskal Agentziak konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Esleituta dituen eginkizunak betetzeko jardun-ildoak definitzea, eta lan horietarako egokiak diren lanak egitea proposatzea.

2.- AZTIren esku jartzea erabaki honen babesean egiten diren lanak eta proiektuak gauzatzeko beharrezkoak eta eskuragarri dauden informazioak.

3.- Beste administrazio edo enpresa batzuekin harremanak egitea edo koordinatzea, lanak hobeto egiteko.

4.- Hitzarmen honen xedea hobeto betetzeko eskatzen den lankidetzaren laguntza erraztea, eta, beharrezkoa bada, beste erakunde eta organismo batzuen koordinazioa eta, hala badagokio, parte-hartzea antolatzea akordio hau gauzatzeko.

5.- Aurrekontu-baliabideen barruan, lankidetzaren hitzarmen bakoitzean zehazten diren ikerketak edo azterlanak gauzatzeko kostua finantzatzea, dagokion izapidetzea egin ondoren.

SEGUNDA.- COMPROMISOS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA.

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

1.- Definir las líneas de actuación para el cumplimiento de las funciones que tiene encomendadas, proponiendo la realización de aquellos trabajos que resulten adecuados a las mismas.

2.- Poner a disposición de AZTI las informaciones necesarias y disponibles para la ejecución de los trabajos y proyectos cuya realización se concrete al amparo del presente acuerdo.

3.- Realizar o coordinar contactos con otras administraciones o empresas para el mejor desarrollo de los trabajos.

4.- Facilitar la colaboración y asistencia exigida para el mejor cumplimiento del objeto del presente acuerdo, y en caso necesario articular la coordinación y, en su caso, participación de otros entes y organismos en la ejecución del presente Acuerdo.

5.- Financiar, dentro de sus disponibilidades presupuestarias, el coste de ejecución de las investigaciones o estudios que se definan en cada convenio de colaboración, previa la tramitación que corresponda.

**HIRUGARRENA.- AZTI
FUNDAZIOAREN KONPROMISOAK.**

AZTI / AZTI Fundazioak konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Sinatzen diren lankidetzahitzarmenen xede diren ikerketak edo azterlanak egitea, hitzarmen honen esparruan eta Uraren Euskal Agentziak definitutako jarduera-ildoekin bat etorritz.

2.- Urtero, hitzarmen honen bosgarren klausulan sortzen den jarraipen-batzordeari – Eta, hala badagokio, lankidetzahitzarmenak sinatzean eratzen direnei – Emandako jardueren helburuen eta betetze-mailaren berri ematea, bai eta jarduera horien garapen normala aldatzea dakarten gorabehera guztien berri ere.

3. Urtero proposatzea Agentziaren interesekeztat jotzen diren eta proposatzailearen fundazio-helburuen barruan sartzen diren jarduketak egitea, batzorde horretan azter daitezen.

4.- Agentziak batzorde beraren esparruan definitutako jarduera-proposamenak jasotzea eta baloratzea.

**TERCERA.- COMPROMISOS DE LA
FUNDACIÓN AZTI/AZTI FUNDAZIOA.**

La Fundación AZTI/AZTI Fundazioa se compromete a:

1.- Realizar las investigaciones o estudios que constituyan el objeto de los convenios de colaboración que se suscriban, en el marco del presente Acuerdo y de acuerdo con las líneas de actuación definidas por la Agencia Vasca del Agua.

2.- Informar anualmente a la comisión de seguimiento que se crea en la cláusula quinta del presente acuerdo -y en su caso, a las que se constituyan con ocasión de la firma de los convenios de colaboración- en relación con los objetivos y grado de cumplimiento de las actuaciones encomendadas, así como de todas las incidencias que supongan una alteración del normal desarrollo de las mismas.

3. Proponer anualmente para su análisis en la citada comisión la realización de aquellas actuaciones que se consideren de interés de la Agencia y entren dentro de los fines fundacionales de la proponente.

4.- Recibir y valorar las propuestas de actuaciones definidas por la Agencia en el ámbito de la misma comisión.

5.- Datuak babesteari buruzko legeria betetzeko beharrezkoak diren lanak bere gain hartzea.

LAUGARRENA.- LANKIDETZA-HITZARMENAK.

Bi aldeek lankidetzaz hitzarmen bat sinatuko dute jardura-ildo edo proiektu espezifiko bakoitza gauzatzeko, honako hauek zehaztuta:

- Hitzarmenaren xedea osatzen duten ikerketen edo azterlanen deskribapena.

- Aldeen betebeharrak.

- Kronograma eta lanak egiteko epea.

- Ordaintzeko modua.

- Jarraipen Batzorde Teknikoa, hala badagokio.

- Egin beharreko jarduketak bakoitzaren edukien arabera egokiak diren gainerakoak eta, nolabehere, 40/2015 Legearen 49.

BOSGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.

1.- Jarraipenerako batzorde misto bat eratuko da, alderdi bakoitzeko bi

5.- Asumir la realización de las labores que resulten precisas para el cumplimiento de la legislación en materia de protección de datos.

CUARTA.- CONVENIOS DE COLABORACIÓN.

Para la realización de cada una de líneas de actuación o proyectos específicos cuya realización acuerden llevar a cabo, las partes suscribirán un convenio de colaboración en el que detallarán:

- Descripción de las investigaciones o estudios que constituyan el objeto del mismo.

- Obligaciones de las partes.

- Cronograma y plazo de ejecución de los trabajos.

- Forma de abono.

- Comisión técnica de seguimiento, en su caso.

- Aquellas otras que resulten adecuadas atendiendo al contenido de cada actuación a realizar y, en todo caso, las demás exigidas por el art. 49 de la Ley 40/2015.

QUINTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO.

1.- Se constituirá una comisión mixta de seguimiento compuesta por dos personas

pertsonak osatua. Alderdiek izendatuko dituzte, hurrenez hurren, honako eginkizun hauek betetzeko:

- AZTIk egindako lanen betetze-mailari buruzko urteko txostenak jaso eta onartzea.

- Lan horiek osorik egitea onartzea.

- Ekitaldi ekonomiko bakoitzaren amaieran, akordio honen babesean sinatutako lankidetzaz hitzarmenen betearazpen-mailari buruzko txosten bat egitea, Agentziari helarazteko.

- Aurkeztutako jarduketa-proposamenak aztertu eta baloratzea, bi erakundeei egokienak iruditzen zaizkienak egiteko proposatzeko.

2.- Akordioa indarrean dagoen bitartean, eta alderdietako edozeinek proposatuta, batzordea bildu egingo da jarduketan martxa onak hala eskatzen duen guztietan, eta, nolanahi ere, urteko azken hiruhilekoan ohiko bilera bat egingo du urtero.

Bilerak egiteko eta erabakiak hartzeko quoruma kideen ahobatezkotasuna izango da.

por cada una de las partes, que se designarán, respectivamente por las mismas, para el desempeño de las siguientes funciones:

- Recibir y aprobar los informes anuales relativos al grado de ejecución de los trabajos realizados por AZTI.

- Aprobar la realización completa de dichos trabajos.

- Elaborar, al final de cada ejercicio económico, un informe sobre el grado de ejecución de los convenios de colaboración suscritos al amparo del presente Acuerdo, que elevará a la Agencia.

- Analizar y valorar las propuestas de actuaciones presentadas, a fin de proponer a su vez a ambas entidades la realización de aquéllas que considere más apropiadas.

2.- Durante la vigencia del Acuerdo y a propuesta cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones y, en todo caso, celebrará una reunión ordinaria con carácter anual, dentro del último trimestre del año.

Los quorum de reunión y adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- Akordio honen babespean hitzartzen diren azterlan edo lanen bat gauzatzean beharrezkotzat jotzen bada horien jarraipen espezifikoa egiteko batzorde tekniko bat eratzea, alderdi sinatzaileek izendatuko dute batzorde hori, eta haren osaera eta funtzionamendu-araubidea jasoko dira horretarako sinatzen den lankidetzak-hitzarmenean.

4.- Erabaki honetan berariaz aurreikusi gabeko gaitan, 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluko 3. atalean araututako kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

SEIGARRENA.- DATUAK BABESTEA.

AZTIk konpromisoa hartzen du Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari eta datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta arlo horretan aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoa betetzeko.

Era berean, berariaz dago behartuta erabateko konfidentzialtasuna eta diskrezioa gordetzera akordio honen babesean egiten dituen lanen ondorioz jakiten duen edozein daturi buruz, bereziki izaera pertsonaleko datuei buruz; izan ere, datu horiek ezin izango ditu kopiatu edo erabili lankidetzak-

3.- Si con ocasión de la ejecución de alguno de los estudios o trabajos que se convengan al amparo del presente Acuerdo se estima necesaria la formación de una comisión técnica para el seguimiento específico de los mismos, aquélla se designará por las partes firmantes, incluyéndose su composición y régimen de funcionamiento en el convenio de colaboración que se suscriba al efecto.

4.- En lo no previsto expresamente en el presente Acuerdo, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en Sección 3ª del capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015.

SEXTA.- PROTECCIÓN DE DATOS.

AZTI se compromete a cumplir lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, de protección de datos de carácter personal y demás normativa aplicable en dicha materia.

Igualmente queda expresamente obligada a mantener absoluta confidencialidad y reserva sobre cualquier dato que pudiera llegar a conocer con ocasión de los trabajos que realice al amparo del presente Acuerdo, especialmente los de carácter personal, que no podrá copiar o utilizar con fin distinto al que figure en los convenios

hitzarmenetan agertzen ez den beste xede baterako, ez eta beste batzuei laga ere, ezta kontserbazio-ondorioetarako ere.

ZAZPIGARRENA.- AKORDIOAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA.

1.- Akordioa administratiboa da, eta interpretatzeko eta garatzeko, administrazio publikoen arteko lankidetzak hitzarmenei aplikatu dakiekeen ordenamendu juridiko-administratiboa hartuko du kontuan.

2.- Esparru Akordio honek edo haren betearazpenak sor ditzakeen interpretazio-arazoak jarraipen-batzordeak ebaztzeko ditu, aurreko klausulan adierazitakoaren arabera; ezinezkoa bada, urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoa beteko da.

ZORTZIGARRENA.- AKORDIOAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.

1. Akordioak ez du ekarriko esku hartzen duten alderdien eskumenei uko egitea edo horiek aldatzea; izan ere, alderdi horiek beren gain hartzen dituzte hitzarmenaren ondorioz hartzen dituzten konpromisoei datxekizunak.

2. Akordioak ondorioak izango ditu eta esku hartzen duten alderdiak behartuko ditu sinatzen denetik, eta lau urteko

de colaboración, ni tampoco ceder a otros ni siquiera a efectos de conservación.

SÉPTIMA.- RÉGIMEN E INTERPRETACIÓN DEL ACUERDO.

1.- El Acuerdo es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que pueda plantear el presente Acuerdo Marco o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015, de 1 de octubre.

OCTAVA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL ACUERDO.

1.- El Acuerdo no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El Acuerdo surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y tendrá una duración inicial de cuatro años

iraupena izango du hasieran, aplikatu beharreko legeriaren arabera luza daitekeena.

BEDERATZIGARRENA. AKORDIOA IRAUNGITZEA.

1. Akordioa azkendu egingo da aurreko klausulan aipatutako indarraldia igarotakoan, edo ebazpen bidez.

2. Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du konpromiso horiek zorrotz betetzeko eskatzeko, edo akordioa suntsiarazteko eskatzeko. Kontratua suntsiarazten bada, alderdiek zehaztuko dute zer baldintza bete behar diren obrak amaitzeko eta ordaintzeko.

Eta ezarritakoaren arabera, agertutakoek bi aletan sinatu dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

**URAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARI
NAGUSIA/EL DIRECTOR GENERAL DE LA
AGENCIA VASCA DEL AGUA**



ERNESTO MARTINEZ DE CABREDO ARRIETA

prorrogables de conformidad con la legislación aplicable.

NOVENA.- EXTINCIÓN DEL ACUERDO.

1.- El Acuerdo se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del acuerdo. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las obras que se hallen en ejecución.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento

**AZTI FUNDAZIOKO ZUZENDARIA/EL
DIRECTOR DE LA FUNDACIÓN AZTI/AZTI
FUNDAZIOA**

ROGELIO POZO CARRO